# I ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**2.837**

**274/2003 ERABAKIA, apirilaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Euskadiko Ondare Monumentu-Arkitektonikoaren Aholku Batzordean aldundiak duen ordezkaria aldatzen da.**

Arabako Foru Aldundiak bere jardun publikoan zenbait erakunde, elkarte eta elkargotan hartzen du parte.

Halaber, agintaldi baten zehar aldundiaren ordezkariak aldatu edo izendatu egin daitezke. Beraz, zenbaitetan bata egingo da eta beste batzuetan bestea.

Ondorioz, diputatu nagusiaren eta Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren proposamenari jarraiki, diputatuen kontseiluak gaur bertan eztabaidatu ondoren, ondokoa

ERABAKI DUT:

Lehena.- Juan Ignacio Lasagabaster Gómez jauna, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuko zuzendaria, izendatzea Arabako Foru Aldundiaren ordezkari Euskadiko Ondare Monumentu-Arkitektonikoaren Aholku Batzordean (Elkarte Erroldan 49 zenbakikoa).

Bigarrena.- Erabaki honek hartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean noiz argitaratu gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 15a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

**2.839**

**287/2003 ERABAKIA, apirilaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez behin betiko onesten da Burgelun Ondasun Higiezinen gaineko Zerga ordaindu behar duen hiri-lurzoruaren mugak.**

Otsailaren 26ko 132/2003 Foru Aginduaren bidez hasierako onespena eman zitzaion Burgelun Ondasun Higiezinen gaineko Zerga ordaindu behar duen hiri-lurzoruaren zenbait muga aldatzeari.

Aipatutako lege araudiko xedapen zatiko 3. artikuluak arautzen zuen horrako hori Burgeluko Udalari jakinarazi behar zitzaiola. Jakinarazte hori 2003ko otsailaren 27an egin zitzaion eta 2003ko martxoaren 4an jaso zuten udalean.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Aginduak 11.4 paragarafoan xedatzen du udalek hamabost egun izango dituztela auzigaiari buruz nahi dutena adierazteko.

Jakinarazi zenetik foru agindu horretako 4. artikuluan zehaztutako hamabost egun horiek igarota, Burgeluko Udalak ez du ebazpen horren aurkako alegaziorik aurkeztu.

Ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenari jarraiki, diputatuen kontseiluak gaur bertan eztabaidatu ondoren, ondokoa

ADIERAZTEN DUT:

Lehena.- Burgelun Ondasun Higiezinen gaineko Zerga ordaindu behar duen hiri-lurzoruaren zenbait muga aldatu beharra onestea. Onespen horrek planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuspen espedientean eta bere testu bateginean arautzutakoak bilduko ditu. Hori guztia abenduaren 28ko 1343/2001 Foru Aginduak, irailaren 722/2002 Foru Aginduak eta urriaren 24ko 966/2002 Foru Aginduak onetsi zuten.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**2.837**

**ACUERDO 274/2003, del Consejo de Diputados de 15 de abril, que renueva los representantes de la Diputación en el Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi.**

La Diputación Foral de Álava en el desarrollo de su actividad pública participa en diferentes Organismos, Sociedades o Entidades.

Asimismo, a lo largo de la legislatura interesa renovar o completar, en cada caso, los representantes de la Diputación en los mismos por lo que procede, en los que se señala, su sustitución o designación.

En su virtud, y a propuesta del Diputado General y del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Renovar como representante de la Diputación Foral de Álava en el Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi (número 49 del Registro de Entidades) a don Juan Ignacio Lasagabaster Gómez, Jefe del Servicio de Patrimonio Histórico-Arquitectónico.

Segundo.- El presente Acuerdo producirá efectos desde el momento de su adopción sin perjuicio de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de abril de 2003.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

**2.839**

**ACUERDO 287/2003, del Consejo de Diputados de 15 de abril, que aprueba definitivamente la Delimitación de suelo urbano no sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles realizada en el término municipal de Elburgo.**

Por Orden Foral número 132/2003, de 26 de febrero, se aprobó con carácter provisional, la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Elburgo.

En el artículo 3º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Elburgo, disposición que se realizó con fecha 27 de febrero de 2003, siendo recepcionada por el Ayuntamiento con fecha 4 de marzo de 2003.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido el plazo de quince días desde la notificación, tal y como se especifica en el artículo 4º de la referenciada Orden Foral, el Ayuntamiento de Elburgo no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Elburgo, recogiendo lo dispuesto en el expediente de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como su Texto Refundido, aprobado todo ello mediante la Orden Foral número 1343/2001, de 28 de diciembre, Orden Foral número 722/2002, de 11 de setiembre y Orden Foral número 966/2002, de 24 de octubre.

Bigarrena.- Aurrekoa gorabehera, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Aginduak 2.b).1, 2.b).2 eta 2.b).3 puntuek zehaztutakoa hartuko da kontuan; hain zuzen ere, herriguneetatik kanpo egon eta hiri izaerako eraikinek betetako lurzoruen tratamenduari dagokionez.

Hirugarrena.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean eta lurralde historikoan gehien saltzen diren egunkarietan argitaratuko da. Horrez gain hamabost egun egongo da jendaurrean, interesdunek egoki deritzeten alegazioak aurkez ditzaten. Erabaki hori Burgeluko Udaleko bulegoetan egongo da aztergai, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Aginduak 11.5 artikuluan eta foru agindu hori garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 Foru Dekretuak 7, 8 eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 15a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Segundo.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

Tercero.- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Elburgo, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de abril de 2003.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**2.841**

**303/2003 ERABAKIA, apirilaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena, Euskal Autonomia Erkidegoan PEFC (Pan European Forest Certification) delakoa sustatzeko eskualdeko elkartea eratzeko foru aldundiaren partehartzea, estatutuen proiektua eta elkarte horren batzar orokorretan foru aldundiaren ordezkariak egon daitezen onartzen duena.**

Basogintza orekatuaren printzipioa hedatuz joan den heinean, zura saldu eta erosten dutenek egoki ez ezik, beharrezko ere iritzi zioten zura era orekatuan kudeatutako basoetatik zetorrela egiaztatzeari. Horiek horrela basogintza lanak egiaztatzeko sistema aintzindaria jarri zen abian. Sistema horren izena FSC (Forest Stewardship Council) da eta munduko basoak egoki ustiatu daitezen du helburu, batez ere, tropikoko baso itzelak (Amazonia, Afrika eta Asiako hegoekialdekoak), azken urteotan atzerakada bizkorrean murgildu direnak.

Europako Erkidegoan basogintza orekatu baten printzipioa Helsinkin (1993) eta Lisboan (1998) nabarmendu zen. Urte horretan bertan PEFC (Pan European Forest Certification) delako sistema sortzea helburu zuen lantaldea eratu zen.

Europako basoetarako beren-beregi egindako sistema horrek Europako Erkidegoko Kontseiluaren ebazpena betetzen du eta Europan egiaztagiri bat sortzearen beharra aztertzeari buruzko proposamenari erantzuten dio.

Zuraren egiaztagiri hori lortzeko, beharrezkoa da erakunde egiaztatzaile independenteren batek egiaztatzea basogintza era orekatuan kudeatu dela. Halaber, landutako gaietan egiaztagiridun zura erabili behar da eta haren nondik norakoa jakiten da “Cadena de Custodia de los Productos de Madera” (zurgaiak zaintzeko katea) agirian zehaztutako baldintzak betez. Egiaztagiri hori lortzeko ere beharrezkoa da erakunde egiaztatzaile independenteren batek egiaztatzea. Bai, zurak, bai, horrela landutako zurezko gaiek PEFC logotipo bat eskuratzeko eskubidea dute. Logotipo horrek egiaztatu egiten die erosle eta saltzaileei zur hori era orekatuan ustiatuko basoetakoa dela.

PEFCren (Pan European Forest Certification) Españako sistema Euskal Autonomia Erkidegoan bultzatu eta sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan PEFC (Pan European Forest Certification) delakoa sustatzeko eskualdeko elkartea eratzeko asmoa dago. Elkarte horrek sektore horretan lan egiten duten elkargo profesionalen, erosleen, saltzaileen, erabiltzaileen eta zurarekin beste zerikusiren bat duten taldeen partehartzea bilatzen du. Arabako Foru Aldundia, hasiera batea, baso jabeen taldean izango da eta batzorde orokorrean boto eskubidearen %3 edukiko du.

Elkartearen funtzionamendua eratze erabakian batzorde orokorrak eratze erabakian onartu beharko dituen estatutuek arautuko dute.

Ondorioz, Nekazaritza eta Ingurumen Saileko foru diputatua ez dagoelako, haren zereginetan Lehendakaritza Saileko foru diputatuak proposatuta, diputatu nagusiaren urtarrilaren 27ko 7/2003 Foru Dekretuak xedatutakoaren ildotik eta gaur bertan egindako bilkuran diputatuen kontseiluak aztertu ondoren, ondokoa

**2.841**

**ACUERDO 303/2003, del Consejo de Diputados de 15 de abril, que aprueba la participación de la Diputación en la constitución de la “Asociación Regional para la promoción de la certificación PEFC en el País Vasco (PEFC Euskadi)”, el proyecto de Estatutos y los representantes de la Diputación en las Asambleas Generales de dicha Asociación.**

Como consecuencia de la difusión del concepto de sostenibilidad forestal se creó entre los comercializadores y compradores de productos de madera la conveniencia, convertida en necesidad, de poder certificar que la madera procedía de bosques gestionados de forma sostenible. Así, se puso en marcha el primer sistema de certificación forestal denominado FSC (Forest Stewardship Council), con el ambicioso propósito de certificar los bosques a escala mundial, puesto el pensamiento principalmente en las grandes extensiones tropicales (Amazonía, África, SE asiático...) que se encontraba en rápido retroceso.

En la Unión Europea, el desarrollo conceptual de la Gestión Forestal Sostenible quedó de manifiesto en la cumbre de Helsinki en 1993 y la de Lisboa en 1998. Ese mismo año, se constituye un grupo de trabajo a nivel europeo decidido a crear el Sistema de Certificación Paneuropeo PEFC (Pan European Forest Certification).

Este sistema, diseñado especialmente para los bosques europeos, cumple la Resolución del Consejo de la UE y responde a la propuesta del Consejo de estudiar la conveniencia de una Certificación a escala europea.

Para obtener esta certificación de la madera, es necesario que una entidad certificadora independiente y acreditada audite la Gestión Forestal Sostenible de los montes que la producen. En los productos elaborados debe utilizarse madera certificada y su trazabilidad se consigue cumpliendo las condiciones especificadas en el documento “Cadena de Custodia de los Productos de Madera”. Para conseguir su certificación se precisa también una auditoría realizada por una entidad certificadora independiente y acreditada. La madera y sus productos así obtenidos tienen derecho a un Logo PEFC, que garantiza a los clientes y usuarios la Gestión Forestal Sostenible de los bosques productores.

Para promocionar y difundir el sistema Español de Certificación Forestal Paneuropeo en la Comunidad Autónoma del País Vasco se pretende crear la “Asociación Regional para la Promoción de la Certificación PEFC en el País Vasco (PEFC Euskadi)” que realizará las actividades encaminadas a conseguir la participación e integración en la Asociación de las Asociaciones Interprofesionales del Sector, de los colegios de Transformación, así como de los Colegios de Consumidores, Usuarios y demás partes afectadas. La Diputación Foral de Álava participará inicialmente, dentro del grupo de propietarios forestales, con un 3% del derecho a voto en la Asamblea General.

El funcionamiento de la Asociación se regirá por los Estatutos que habrán de ser aprobados por la Asamblea General en el acuerdo de constitución.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral de Presidencia, en funciones de Diputado Foral de Agricultura y Medio Ambiente, por ausencia de su titular, de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral del Diputado General 7/2003 de 27 de enero y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,